



ENPRESA IDEIA DEFINITZEN

- Asmatu gabeko zerbait

Enpresaren ideia burutzerako momentuan asmatua ez dagoen zerbaitetan pentsatu dugu.

Beharrak detektatu:

Gizarte honetan dauden beharrak asko dira. Guk gizarte gisa pairatzen ditugun beharrak teknologiarik lotutakoak dira gehienbat. Horretaz gain, segurtasun falta nabaria da gaur egungo gizartean, eta teknologia berriek zaildu egiten dute hori gainera. Gaur egun gazte izatea zaila izan daiteke, segurtasun faltak beldurra ekarri dezakeelako, eta askoetan informazio falta ematen da egoera desberdinetan.

Orokorrean, egunerokoan lasai ibili ahal izateko erosotasuna eta segurtasuna da behar nagusi bat.

Gure ekarpena definitu:

Taldearen ekintzaile maila altua da, partaideak ekintzaileak gara eta proiektua aurrera eramateko gogoia dugu. Talde-lidergoa eta taldekideen arteko erlazioa ona da, elkarren artean ondo moldatzen gara eta helburuak lortze aldera abantaila handia da hori. Gogo horrek lanerako irimotasuna ziurtatuko du eta amaitu arte konstante mantenduko garela ziurra da. Taldea egin behar den guztia egiteko prest dago proiektuarengan konfiantza handitu ahal izateko eta badakigu arriskuak hartzea eta aldaketa zein berrikuntzetara moldatzea garrantzitsua dela ekintza honen garapenean, eta kontuan hartuko dira.

Orokorrean, talde osatu eta indartsua gara, taldekideen artean beharrezkoak diren lidergo, negoziatzeko gaitasun eta komunikazioa lortzen dugu eta erronka egiteko gai den taldea gara.

Gazteak garen horretan, gure interes nagusia gaztaroa ahalik eta gehien aprobetxatzea da. Horretarako, mugitu egiten gara, denbora guztian. Kirola egitea gustatzen zaigu, jarduera fisikoa egitea. Leku berriak ezagutzea gustatzen zaigu, jende berria ezagutu ahal izatea eta

esperientzia desberdinak disfrutatu ahal izatea. Gure denbora aprobetxatzea gustatzen zaigu, lagunekin planak egin eta orokorrean egunerokoataz disfrutatzea.

Idea berritzaile bat sortuz, egin nahi dugun ekarpena gazteen segurtasunaren bermaketa da. Gazteak egunerokoan seguruago, erosoago eta alaiako bizi ahal izatea nahi dugu, eta hori horrela izateko beharrezkoa dena eskeini nahi dugu.

Brainstorming:

1. Fasea

Idea guztiak ongi etorriak direlakoan, hainbat ideia proposatu ditugu bestearen ideiak kritikatu gabe:

- Gazteentzako diru antolatzailea (aplikazioa)
- Garraio publikorako txartel digitalak (aplikazioa)
- Festetako edalontzi bat, droga detektatzen duena
- Gazteen egitasmoak (aplikazio edo webgunea)
- Alkoholaren graduak neurtzen duen lastotxoa



2. Fasea

Fase honetan ideia batzuk alde batera utzi ditugu gauzatzeko zailak edo gure beharrak asetzeko oso interesgarriak ez zirelako. Hauek kendu ondoren 3 ideiekin geratu gara.

Gure aukeretako bat gazteentzat dauden egitasmoak aurkezten dituen webgune edo aplikazio bat da. Aplikazio honen bitartez gazteak daude egitasmo guztietaz enteratuko dira gazteei egitasmo desberdinetan parte hartzeko aukera emanez.

Garraio publikorako txartelaren ideia ere oso interesgarria iruditzen zaigu. Txartel birtual hau sortuz gero mugia etxetik atera gabe eta karteran gauza gutxiago eramanda alde batetik bestera mugitzeko eskubidea ematen die. Gainera txartela ahaztu edo galduko balitz zaigu ez genuke bidai berdinen gatik askoz ere gehiago ordaindu beharko.



Azkenik, guk aukeratu dugun hirugarren proposamena festetako baso bat egitea da non baso horrek droga bat detektatzean argia egiten duen. Baso hau oso interesgarria iruditzen zaigu gaur egun bizitzen ari garen egoera larri honi buelta emateko.

3. Fasea

Idea batzuk baztertu eta 3 ideiekin gelditu ondoren, 3 ideieratatik azkeneko ideia aurrera eramateko prest gaude: **festetako baso bat, droga detektatzen duena**. Beste bi ideiak baztertu ditugu, gure enpresaren helburua eta izaera ez duelako definitzen. Guk gazteak zein helduak lagundu nahi ditugu eta hauek espero duten festa ezin hobekak edukitzea nahi dugu. Horretarako, badakigu badagoela jendea gazteen zein helduen osasuna zein segurtasuna arriskuan jarri nahi dutela, guk pertsona hauei aurre egin nahi diegu eta bete-betean errotik arazo hau ekiditeko prest gaude. Horregatik sortu dugu basoaren idei hau.

Enpresa ideia: ideia enpresa bihurtu:



Gure enpresak drogak detektatzen dituen edalontzi bereziak eskainiko ditu, pertsona kopuru handiko bilketetan egoten diren segurtasun arazoak eta droga erabilerak ekiditeko. Honekin, gazte zein bestelakoen segurtasuna bermatuko da, jarduerak egiterako orduan lasaitasun eta erosotasun handiagoa eskaini ahal izateko.

Produktu hau gizarte osoari zuzenduta dago, baina gehienbat topaketa hauetan parte hartzen duten pertsoneri lagunduko die.